

2002tik, 400 milioi euro ordaintzera iritsi da urteko interesetan**EROSKI-K 13 MILIOI EUROREN INTERESAK
ORDAINDU DIZKIE MENDEKO EKARPEN ETA
OBLIGAZIOETAN INBERTITU DUTENEI**

- Otsailaren 1ean ordainduko zaie MFE Mendeko Finantza Ekarpenei eta Mendeko Obligazioen jabeei.
- 2002an MFEetan inbertitu zuenak bere inbertsioaren %85 jaso du interesetan, eta %94, Mendeko Obligazioekin trukatu bazuen
- Aurtengo urteko interesak %2,487an gelditu dira finkatuta 2002an eta 2004an jaulkitako MFEetarako eta Mendeko Obligazioetarako, eta %1,987an 2007ko jaulkipenerako

Elorrio, 2021eko urtarrilaren 29a.- [EROSKI](#)k otsailaren 1ean abonatuko ditu, astelehenarekin, Mendeko Finantza Ekarpenei dagozkien urteko interesak, %2,722ko interes tasan 2002ko eta 2004ko jaulkipenentarako, eta %2,222tan 2007korako. Otsailak 1ean, era berean, EROSKI Mendeko Obligazioen urteko interesak abonatuko ditu, %2,722ko tasan. Guztira, 13 milioi euro abonatuko dizkie EROSKI interesetan inbertsio tituluak dituztenei.

EROSKI MFEen lehen jaulkipena egin zuenetik (2002an), kooperatibak zuzen ordaindu dizkie urteko interesak inbertsioegileei; dagoeneko, ia 400 milioi euro guztira. MFEak eta Mendeko Obligazioak ordaintzeko, zeina ez baita kooperatibaren emaitza ekonomikoen araberakoa, erreferentzia gisa Euriborra gehi hiru puntu hartzen du MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenentarako eta Mendeko Obligazioetarako eta %2,5eko diferentziala MFEen 2007ko jaulkipenerako.

Abonu horren bitartez, MFEa 2002an hartu zuen inbertsioegile batek dagoeneko hasierako inbertsioaren %85 jaso du interesetan, eta %94 orain urte bat iraungitzen diren Mendeko Obligazioen trukea egin bazuen. MFEen 2004ko inbertsioegile batek, berriz, %72 hartu du dagoeneko interesetan, eta, trukea egin bazuen, %81; eta 2007ko batek bere inbertsioaren %48 jaso du, edo %57, trukea egin bazuen.

2021. urterako, interes tasa %2,487an geldituko da (-%0,513 + %3ko diferentziala) MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenentarako eta Mendeko

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Obligazioetarako, eta %1,987an (-%0,513 + %2,5eko diferentziala) 2007korako, eta guztiak abonatuko dira datorren urtean.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)